# Carmen,

UNIBERTSITATEAN TITULATZEN
DIREN IJITO GAZTEEN

# zero‘8 A.



# zero'8 A.

## HEZKUNTZAKO ERREALITATE KRUDELA

Soilik ikasle ijitoen %0,8a titulatzen da unibertsitatean.

**Zergatik gertatzen da hau?** Haur Hezkuntzako zikloan berandu sartzeak baldintzatzen du haur ijito askoren hezkuntza-ibilbidea. Horrekin batera, kurrikulumaren desfaseak eta ikasturteen errepikapeneek ijitoen %62,8ko hezkuntza porrotara eramaten gaitu gainontzekoen %4aren aurrean.15 eta 16 urte bitartean, gehienek, DBH-ko ziurtagiria lortu gabe uzten dituzte ikasketak.

kasketadun ijito erreferente faltak, eskola-segregazioak, itxaropen faltak eta huts egiten dien sistema batek, ijito familietan kideren bat unibertsitate-titulua soilik %0,8ak izatera eramaten du, biztanleria orokorraren %26 baten aurrean. Herrialde gisa lotsatu beharko gintuzkeen datuak.

elcero8.org

# IJITO ERREFERENTE GUTXI

Carmen Jimenez unibertsitate-titulua duten gazte ijito bakarretakoa da. Castilla-La Mancha unibertsitatean, Haur Hezkuntzako ikasketak burutu ditu. Kanpaina honetako protagonistan bihurtzen da, %0,8 hori ordezkatuz. Bere diskurtsoarekin, ahotsa ematen die beste ijito askori.



Sentsibilizazio-kanpaina honek botere publikoak ditu helburutzat, bai estatalak, bai erkidegokoak. Izan ere, haiek dira ikasle ijitoek derrigorrezko ikasketak eta haien formakuntza jarraitzeko arduradunak direnak. Modu honetan, kanpainak komunikazio bide ezberdinak ditu botere publikoei zein biztaleriarengana iristeko.

# ZER ESKATZEN DIEGU BOTERE PUBLIKOEI?

Ijito Idazkaritza Fundaziotik hezkuntza arduraduenei beste neurri batzuen artean, honakoak eskatzen diegu:

- Hezkuntzan Orientatzeko eta Indartzeko Estatuko Plan zehatza, ikasle ijitoek porrotari eta hezkuntza uzteari buelta emateko.
- Eskola-segregazioari heltzea, hiru ijito-haurretatik bati eragiten baitio.
- Haur Hezkuntzako lehen etapetan haur ijitoak doan sartzea bermatuko duten neurriak.
- Hezkuntza formaleko ikasketetara itzultzeko aukerak garatzea

## Ijito Idazkaritza Fundazioa. Zer egiten dugu?

2023an Ikasle ijitoen hezkuntza egoera Espainian ikerketaren datu suntsitzaileak argitaratu genituenetik, Ijito Idazkaritza Fundazioak politikan eragiteko eta gizartea sentsibilizatzeko hainbat ekintza egin ditugu. 2024an abiatutako La No Vuelta al Cole eta 2025ean abiatutako El Zero'8a kanpainak estrategia horren parte dira, eta foku nagusia botere publikoetan dute.

Hezkuntza da Ijitoen Idazkaritza Fundazioaren lehentasunezko esparruetako bat, eta lan handia egiten du ikasleekin, ikastetxeekin eta familiekin. Urtero ,1.800 ume baino gehiagok hartzen dute parte gure orientazioko eta hezkuntza-errefortzuko Promoziona programan. Programa honek, DBH-eko titulua gero eta ume ijito gehiagok izatea lortzen ari da.

Gure helburua? Hurrengo hamarkadan, Goi mailako ikasketak dituzten ijitoak bikoiztea.

Kanpaina bat:

Fundación Secretariado Gitano

IGUAL TRATO
POR LA NO DISCRIMINACIÓN DE LAS PERSONAS GITANAS

**Finantzatzailea:**

Cofinanciado por la Unión Europea

Ministerio de Trabajo y Economía Social | Fondos Europeos

Gobierno de España | Ministerio de Derechos Sociales, Consumo y Agenda 2030

Por solidaridad
Otros fines de interés social